



DISKOA

Agur ezin ederragoa



ROBERT TREVIÑO "MAHLER-EN 9. SINFONIA" ZUZENTZEN IRUÑEKO BALUARTEN.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Opari berezia ekarri digu Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS) bere azkeneko abonu-kontzertuan. Opari bikoitza esango nuke, alde batetik obra zinez ederra eskaini digulako, eta bestetik, interpretazio sakon eta sentitua entzun genuelako.

Zalantzarik gabe Gusav Mahler-en 9. Sinfonia konpositorearen produkzio osoaren obra ederrenetako bat da. Lau mugimenduz osatutako lan erraldoi honetan mota guztietako giro eta sentimenduak aurki ditzakegu eta barruraino iristen den musika topatzen dugu une guztietan. Kontutan izan behar dugu Mahler-en azken sinfonia izan zela. 1909. urtean amaitu zuen lana eta 1911. urtean hil zen konpositore austriarra, 50 urte zituela. Lan indartsua da, adierazgarria, bizia. Oso kurioa da,

baina oso musikazale ez den pertsona batek entzuten duenean, ez daki esaten gustatzen zaion ala ez; baina bai esaten du barruraino iritsi zaiola musika hau, nolabait bere barrukoak mugitu dituela. Egin ezazue proba.

Gaixorik zegoenean idatzi zuen sinfonia hau Mahlerrek, baina hala eta guztiz ere, ez da lan ilun edo nostalgikoa. Alban Berg konpositoreak adierazi zuen bezala "Mahler-ek sekula idatzi zuen sinfonia loriatsuena da. Lurra eta natura biziki maite zituela ematen du aditzera, bertan bakean bizi nahi duela, erabat disfrutatu nahi duela, barne-barneraino, heriotza iritsi arte, denoi iristen baitzaigu, lehenago edo geroago, heriotza".

EOSek, Robert Treviñoren zuzendari-tzapean, jakin izan zuen sentimenduak transmititzen. Irakurketa adierazkorra

MAHLER-EN 9. SINFONIA, RE MAIORREKOA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Robert Treviño

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
Maiatzaren 9a

egin zuen zuzendariak, non garrantzi handikoak izan ziren erritmo markatuak, isiltasun adierazkorrak, eta soka doi-doi. Ehunduren eta fraseaketaren menderatzea, nagusitasun izugarriarekin, interpretazioaren ezaugarri nagusia izan zen uneoro. *Pianissimi* zoragarriak, umore aldaketen delikadezia, disonantzien garbitasunen atximurra... Dena puntu-puntu egon zen, dudarik gabe.

Une magikoa bukaeran iritsi zen. Sinfoniaren *Adagio* xarmagarriaren ikuspegi mistikoa eman zuen Robert Treviño zuzendariak. Infinitoraino luzatu zituen soinu-izpiak. Doitasunez eskaini zuten giro magiko-erlijioso hori. Zur eta lur geratu ginen han geundenok. Zaila da Gasteizko antzokian sekulako txalokadak lortzea, baina entzuleak maitemindurik geratu ziren. ●